

## ENPRESAREN AURKEZPENA

Gu "Plan P" enpresa gara. Mundu guztiari aukerak sortzen dizkion enpresa bat gara, hala nola, lana, laguntza psikologikoa eta horri buruzko azterlanak. Erantzukizun Mugatuko Sozietatea sortzea erabaki dugu, izan ere, argi geneukan ez genuela



Sozietate Anonimo bat sortuko ez baitugu horretarako diru nahiko (60.000€) eta ez genukeelako nahi gure enpresako partizipazioak libreki transmititzea.

4 kide gara geure empresan, eta honako hauek dira gura eginkizunak:

1. Maialen harreragailea da. Norbait guregana etortzen denean, postaz edo aurrez aurre, arrazoia azalduko digu (eskolak emateko, laguntza eskatzeko edo praktikak/lana egiteko). Horren arabera, Maialenek eskaera egiteko jarraibideak emango dizkio. Eskola eta kontsulta ordutegi guztiak ere izanen ditu.
2. Bisila irakaslea da. Bezeroek informazio guztia izan ondoren, laguntza behar badute edo klaseak eman nahi badituzte, Bisila arduratuko da. Ezagutzen duzun pertsona batek laguntza behar badu, Bisilak pertsona hori ebaluatuko du. Arazoaren larritasunaren arabera, psikologo profesional baten edo praktikatzen ari den ikasle baten laguntza jasoko du. Arazoa larria bada, laguntza behar duen pertsonarekin jarriko da harremanetan eta Martinen kontsultara joateko aukera emango zaio. Horrez gain, ikasleak klaseak eman ahal izango ditu, laguntza nahikoa ez bada ere klaseak emateaz ere arduratuko da.
3. Ekaitz gure administratzailea da. Eskura dagoen diru guztia administratzeaz, mundu guztiak ordaindu duela ziurtatzeaz eta daukagun aurrekontua mantentzeaz arduratuko da. Horrez gain, praktikatzen ari diren psikologoak berari zuzendu beharko zaizkio dirua negoziatzeko.
4. Martin enpresaren psikologo gorena da. Martin arduratuko da egoera okerreanean dauden pazienteez. Martini kontsultan atzematen diren kasurik larrienak iristen zaizkio. Ideia gehien dituen eta psikologia zein psikiatria ikasi dituen, laguntza gehiago behar duten pazienteentzat.

Proiektu berri bat gara, hiru eremu elkar ditzakegulako, hala nola irakaskuntza eta osasun mentala leku berean. Gure proiektua laguntza eta ezagutzak emateko modu berri bat da, modu errentagarri, ekonomiko eta bizitzarako irisgarria.

Gure ongizate soziala, mundu guztiak psikologia eskura izatea da. Inolako arazorik gabe artatu ahal izatea, dela ekonomikoa, dela itxaron behar duten denbora kopuru handikoa. Jendeari behar dituen gauzak erakutsiko dizkiogu, behar duten guztiei laguntzeko. Seme-alabei lagundu nahi dieten gurasoei, eta alderantziz. Beren lanek eragindako estresetik atera behar duten helduei. Laguntza behar duen eta beste askok bezala jasotzeko aukerarik ez duen edozein pertsonari.